

(Gog)argitua

Antzina bataiaberriei ematen zieten izen hori, *bataioa bera argitzapen gisa ulertzen bait zuten.

Gogartea

1. Sin.: Gogoeta(ldia); Hausnarketa; Pentsaketa. Arruntki norberaren gogamena zer baiten gainean ipintzea da, hartaz izpiritualki iharduteko.

2. Sin.: Meditazioa; Gogamen(ezko) otoitza. Erlijiozko hizkera berezian, otoitza-mota da. Ik. Otoitza.

Gogoaren kontzentrazioa da, erlijiozko gairen baten barrura sartzeko eta horren sakonean murgiltzeko, horren zentzua, balioa eta *misterioa barneratu asmoz.

Kristau-izpiritubideak otoitza-modutzat hartzen du, beraz, gogartea, kontenplaziozko otoitzetik bereiziz. Alde horretatik, gogamenezko, eta ez hitzezko, otoitzera da, gogoeta-prozesu gisa egiten dena. Batzutan zuzendariren batek gidatu ohi du taldeko gogartea. Ik. Kontenplazioa.

Erlijiozko egiaren bat edo Bibliako parterteren bat aukeratu ohi dute, horren inguruan pentsamenduak lotuz, bihotzeko afektuak suspertzeko.

*Erlijiosoen eta *elizgizonen artean zehaztuta egon ohi dira nolabait gogarterako uneak. *Gogarte-etxea izena ematen zaie, kristau-fedea eta biziera aztertzeko, sakontze eta berritzeko ihardunaldietarako prestatutik dauden eraikinei.

Gogartea, ordea, kristautasuneko ezezik, hainbat erlijiotako iharduna edo ariketa da, eta horietako bakoitzean zentzu ezberdintsua eduki ohi du. Berebiziko garrantzia du gogarte-ariketak *budismoan eta *hinduismoan. Funtsean ekialdeko *izpiritubidean, giza bizitza egunerokoaren barrunbea argitzea edo da gogartea, nor bere burua ezagutzeko eta izpiritua munduaren gorabeheretatik ateratzeko.

Hinduismoan yogaren seigarren fasea da gogartea.

Budismoaren Japoniako zen forma bereziki *gogartean edo meditazioan oinarritzen eta mamitzen da; eta arazoimenaz gainera tarte-gabeko esperientzia erlijiozkozkatat ulertzen dute. Zen-aren *monastegi guztietako barruti nagusia gogarte-aretoa da, hain zuzen ere.

Kristautasunaren eta ekialdeko erlijioen gogartea kontzeptuen ezberdintasuna, Jainkoa bururatzeko duten ezberdintasunetik dator: *Kristautasunak Jainko pertsonala sinesten duen bitartean, hinduismoan eta bu-

dismoan *Absolutuazko ulerkera inbertsonala gailentzen da.

Ekialdeko gogarteari buruzko pentsaera eta metodoak aski zabaldu dira Mendebaldera eta Europara, yoga hinduistaren eta zen budistaren bidetik, hain zuzen ere.

Paulo Agirrebaltzategi

Gogarte traszendental

1958an Maharixi Maged Yogi-k Indian sorturiko erlijio-mugimendua.

Gogarterako-metodo berezia da, zeinaren bidez ondorio fisiologikoak eta, horrela, beren buruen eta kontzientzien ezagutza zabalago lortzen omen dituzte gogarte-egileek.

Milioi bat jarraitzaile ditu; erdiak inguru A.E.B.etan.

Ik. Gogartea; Meditazioa.

Gogarte-aldi izpirituala

Sin.: Gogo-ihardunaldia; Erretreta izpirituala.

Eliza Katolikoan egun bateko edo gehiagoko denbora, *gogartean, *otoitzean eta bestelako ariketa izpiritualetan fededunek ematen dutena. Eguneroko eginkizunetatik aldentuz eta gehienetan komenturen batean edo hartarako etxe berezitan egin ohi da; isiltasunari garrantzi handia ematen zaio gehienetan.

Erlijiosoak eta apaizak behartuta daude, beren legeen arauera, horrelako gogarte-aldiak egitera.

Horrelako ariketa izpiritualaren sistema berezi eta oso arautua asmatu zuen S. Inazio Loiolakoak, Exertzizio Izpiritualak edo *gogo-ihardunak izena hartu duena. Gaur gogo-ihardunak hitza zabaldu egin da edonolako erretreta edo ihardunaldi izpiritual programatu orokorki adierazteko, egun betekoa baino luzeagoa baldin bada behintzat; baina S. Inazioaren metodoaz gain, beste asko eta ezberdin erabiltzen dira; eta izenak ere ezberdinak ematen zaizkie sarritan horrelako gogarte-aldiei.

Ik. Gogartea.

Gogarte-etxea

Etxe berezia da, gogo-ihardunaldiak, taldeko otoitzaldiak edo kristau-gogoetaldiak antolatzen dituen. Izen horixe dute, e.b., Loiolakoak eta Arantzazukoak. Antzeko beste hainbat badira Euskal Herrian.

Ik. Gogo-ihardunak; Gogartea; Gogarte-aldi izpirituala.